

Estilo asertiboa: Hezkuntza aukera bat

Sarri, esan ohi da, gurasoek haurrak hezteko garaian konpromiso falta nabaria azaltzen dutela eta hutsune horrek gure gizartea kezkatzen duten ondorioak dakartzala, esaterako: biolentzia, eskola-porrota, drogen kontsumoa...

Familiak errudun jo baino lehen eta asmo horretatik aldenduz, konponbide berri bat proposatu beharko litzateke. Aterabide berri honen funtzio nagusia, familiei, beraien seme alabak baldintzarik gabe maitatu behar dutela erakustea da. Gurasoek maitasuna eskaini behar die seme-alabei eta, erea berean, oreka gorde behar dute arau argiak ezartzerakoan. Familiaren funtzioa ordezkazina da eta, beraz, jarraibideak eskaini behar zaizkie beraien eginbeharra segurtasunez bete diezaten.

Gogoan izan, ez dela heziketa perfektua existitzen, hau da, ez dago heziketa perfektu hori lortzeko arau multzo bat eskainiko duen errezetarik. Gainera kontuan izan behar dugu ez daudela berdin-berdinak diren bi haur, ezta familia bereko haurrak izanda ere. Hori dela eta, "formula magikoen" ordeztuz, egoera anitzetarako baliagarriak izan daitezkeen gida batzuek baliatu gaitzake orientazio gisa.

Seme-alaben eguneroko heziketan garrantzitsua da espontaneoak izatea. Intuzioa (berezko sena) beharrezkoa da, familiak baitira beraien seme-alabak hobekien ezagutzen dituztenak eta baita hauek laguntzeko modurik onena zein den dakitenak ere. Zentzu honetan enpatia erabil dezakegu eta hori baliagarria izango zaigu seme-alabek egoera jakin batean jarduteko dituzten arazoak ulertzeko. Jokabide horretatik abiatuz seme-alabei bestearen lekuan jartzen irakats diezaiekegu.

Koherentzia ere garrantzitsua da (norberak sinetsi egin behar du erakutsi nahi duen horretan). Izan ere, esaten eta egiten denaren artean kontraesanak ematen badira, arauak galdu egiten du bere balioa. Horretarako, familiek segurtasunez jardun behar dute eta kontraesanik gabe, batez ere, seme-alabek identifikatzen eta imitatzen duten portaera estilo zehatz batekin. Helburua ez da haurra, nahi dugun horretan bilakatzea edota trebatzea. Izan ere, arrakasta gehiago izango dugu haien gaitasunak, izaera, trebeziak... ezagutarazten laguntzen badiegu.

Hezkuntzan estilo asertiboak hitz egiten dugunean, elkarrenganako errespetuan eta kooperazioan oinarrituak dauden familia arteko harremanez hitz egiten ari gara. Estilo honetako gurasoak, erabakietan okertu daitezkeela onartzen dute, edozein gizakik huts egin dezakeen bezala eta seme-alabak autonomoak izatera bultzatzen dituzte, beraien nolakotasun optimoena azaleraztan laguntzen dietelarik.

Estilo honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Bere adinera egokitutako arau argiak ezarri
- Zentzuzkoak diren sariak eta zigorrak ezarri
- Hitzezko errefortzu positiboa erabili
- Autonomia eta independentzia sustatu
- Elkarrizketa eta negoziaketa erabili
- “Ez” esaten irakatsi
- Norberaren estimua indartu (autoestima)
- Erantzukizunaren ideia helarazi
- Erabakiak hartzen irakatsi
- Sozializazioa indartu
- Arauekiko errespetua adierazi

Laburpena

Hezkuntza-eremuan estilo asertiboa garatzen duten familiak, beraien seme-alabei irakasten die erantzukizunaren ideia zein den, beraien ekintzen ondorioak bereganatzeko. Talde laneko abileziak izatera bultzatzen dituzte eta horrela, kooperazioa, erabakiak hartzeak eta arauetikiko errespetua bezalako jarrerak ikasten dituzte. Hori guztia, laguntza afektiboan eta elkarrekiko konfiantzan oinarritua.

Ainhoa Manzano Fernandez doktorea
Juan Luis Martin Ayala doktorea
ETXADI
Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia